


6 mantangorri



AZOKA

**LIBURUA****Izenburua:** 'Simon ipuinen munduan'.**Testua:** Arrate Egaña. **Marrazkiak:** Iñaki G. Holgado.**Bilduma:** Xaguxar. **Orrialde kopurua:** 176 orrialde.**Adina:** 10 urtetik gorakoentzat. **Argitaletxea:** Elkar.**Arrate Egaña**

IDAZLEA

**«Nekez aurki liteke ipuinetara daramana baino bidaia dibertigarriagorik»**

Zoritzarreko sentitzen da Simon, liburuko protagonista. Gurasoek ez diote jaramon handirik egiten, ezta eskolako kideek ere. Hala, izeba Filoren urtebetetzea ospatzeko elkartzen diren egunean, Ipuinen Mundura sartzeko bidea topatuko du Simonek. Ipuinetako pertsonaia ezagun ugarirekin egingo du topo han: Txanogorritxo, lamiak, Aladino... Eta biziuden mundutik joandako beste hainbat haur «zorigabe» ere ezagutuko ditu. Ipuinez ipuin bidaia entretenigarria egingo dute elkarrekin.

**Simonek bidaia zirroragarri bat egin du. Nora?**

Simonek zoritzarreko sentitzen du bere burua; nonbait, gurasoek ez diote jaramonik egiten, eta ikaskideek ere ez, ez bada jotzeko edo burla egiteko. Halako batean, hori dena utzi eta Ipuinen Mundurako sarbidea topatuko du. Han, bai, berebiziko bidaia egingo du. Txanogorritxo, Peter Pan, lamiak, Merlin, Aladino... eta abarrekoez gain, egiazko umeak ere aurkituko ditu, ohiko munduan bere arazoan antzekoak jasan dituztenak, edo larriagoak. Bizitzak abentura eten-gabea dirudi Ipuinen Munduan, baina han ere gatazkak sortuko dira, egoera latzak eta beldurgariak.

**Arazo txiki bat izango du han, ordea, ipuinak ez ditu oso ongi ezagutzen, ez baitzaio irakurtzea askorik gustatzen...**

Ez, ez zaio irakurtzea gustatzen. Eta joango den inguruari biziki balaratzen dute ipuin berriak erama-tea... Hori dela eta, ez dute ongi hartuko; hasieran ez, behintzat. Nolanahi ere, azkeneko unean, bere lagun Maiderrek kontatutako kondaira bat etorriko zaio burua: lamia eta artzainarena. Hori oso garrantzitsua izango da istorioaren bukaerarako.

**Irakurtzea zein interesgarria, dibertigarria edo erabilgarria izan daitekeen zabaldu nahi****izan al duzu? Bestela, zein mezuigorri nahi izan duzu?**

Aipatzen duzun hori mezuetako bat izan da: irakurtzea dibertigarría da, gustuko liburua hautatuz gero. Ipuin asko daude, genero ugari; geuri dagokiguna aurkitu behar. Gainerakoan, ez nuen aparteko irakaspenik helarazi nahi. Liburua abentura handi bat da, eta hori kontatzea izan dut helburu nagusi.

**Simonen bidaia ipuinetan bidaiatzeko aitzakia polita da, hainbat ipuin ezagutzeko bidea ere ematen baitu liburuak.**

Pentsatzen jarrita, nekez aurki liteke ipuinetara daramana baino bi-

dai aibertigarriagorik. Toki zein garai desberdinak ezagutzen dira, asko guztiz fantastiko eta harrigarriak, pertsonaia bereziak, trama erakargarrietan harrapatuta... Irakurleak horrelako bidaia irudikatzea nahi nuen, ipuinez ipuin jauzika. Bide batez, bidaiaarena aitzakia polita iruditu zait ipuin edo kondaira horiek ezagutarazteko.

**Nondik bururatu zittaizun istorio fantastiko honetarako ideia?**

Ideia hori betidanik ibili izan dut buruan bueltaka. Liburuetan sartu ahal izatea, edo film batean, pertsonaiek batera, beren abenturaren gora eta behera... Itzela litzateke! Gainera, ipuin klasikoek joko ederra ematen dute: dibertigarriak izateaz gain, gure barneko emozioekin lotzen dira.

**Bidaiaik izan du alde positiborik Simonentzat, ezta?**

Hasieran behartuta bada ere, azkenean zalttu eta irakurri eta idatzi egingo du Simonek. Eta beste gauza asko ere ikasiko ditu: merezi due-la adiskideak zaintza, kasurako, edo ez dela beti uste izan duen bezain koldarra.

**Irakurleengän lortu nahi duzu irakurtzeko irrika piztea edo ipuinak interesgarriak izan daitezkeela erakustea?**

Bai, tentuz bilatu behar den arren. Klasikoak gehiago baloratu beharko genituzke: gure klasikoak, mundu osokoak. Oraindik ere biziki interesgarri eta dibertigarriak direlako dugu beti haiengana itzultzeko joera.

**Eta gustura zaude Iñaki G. Holgadok nola irudikatu dituen aspaldiko ipuin horiek eta zurea?**

Asko gustatzen zait Holgadoren obra. Bere estiloa ez da oso infantila; narratiboa bai, aldiz, komikien hurbila. Primeran moldatzen zaio nire idazki honi; buruan nituen eszenak bikain irudikatu ditu.